



71 Zka. EKAINA 2018 JUNIO Nº 71

Hainbat izan dira mugariak bigarren hiruhileko honetan zehar, estatutuak aldatu eta martxoaren amaieran batzar nagusia egin ostean.

Prestakuntza plana nabarmendu nahiko genuke, eta Agintzarirekin sinatutako lankidetzaz hitzarmena.

Gizarte Hezkuntzaren inguruko Ezagupena Sortzeari dagokionez, Batzordekook garrantzia eman nahi diogu Deontologia Batzordeak burututako lanari, zeinek "Gizarte Hezkuntzaren Deontologia Kodea. Lanbide jardunean oinarritutako ikuspegia" argitaratu baitu, eta irakurtzera eta zuen eguneroko lan jardunarekin erkatzera gonbidatzen zaituztegu. Era berean, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuaren jarraipena egin duen Batzordeak burututako lana ere aitortu nahiko genuke. Honek, gainera, EHU-Ibaetako irakasleekin prestakuntza saio bat egin du, eta elkargokideekin hainbat topaketa egitekoak dira dekretuaren eragina aztertu eta eztabaidatzeko.

GHEE-CEESPVtik proposamen bat eraman genuen Gizarte Hezitzaileen Elkargoaren Kontseilu Nagusira (CGCEES) Estatu mailako Deontologia Batzorde bat osatzeko. Hausnarketa aldi bat zabaltea erabaki zen, elkargo guztiek horretaz zuten iritzia erabakitzeko (3 elkargok beren beregiko aldeko iritzia adierazi dugu), ezin izan baikenuen garaiz helarazi. Proposamen honi esker elkargoaren artean eztabaida bat sortu da, egunero burutzen dugun lanean Deontologia leku garrantzitsu batean jartzeko.

GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



Maiatzaren 12-13ko astean, Gizarte Hezitzaileen Elkargoaren Kontseilu Nagusia egin zen Madrilan eta GHEE-CEESPVk aktiboki hartu zuen parte bertan.

2017ko Memoria txostena eta Aurrekontua eta 2018rako Aurrekontua eta Lan Egitasmoa onesteaz gain, landu ziren gaien artean, nabarmendu egin nahi dugu Gizarte Hezkuntzako Legearen aldeko Kanpainan burututako lana, bai Estatu mailan bai Erkidego mailan. Gizarte Hezkuntzaren Legearen aldeko atxikimendu ugari lortu dira, udal, probintzi eta erkidego mailan, baina ahalegin eta baliabide gehiago beharko dira Legea Parlamentuan eztabaidatua izan dadin.

Azkenik, Kontseiluaren Batzarra berriztatzeari ekin zitzaion: presidentetzako lekukoa Lourdes Menachok (COPESA) hartu zuen, eta kargua betetzen duen lehenengo emakumea izango da. GHEE-CEESPVkoek geure eskerrona adierazi nahi diegu aurreko batzarretik irten direnei, betetako lanagatik eta izan duten konpromisoagatik, eta geure aitortzea ere bai orain sartuko diren berriei. Eurekin batera gaude Kontseilu honen helburuetan eta xedeetan.

GHEE-CESPVREN BERRIAK

Deontologia eta Etika Batzordeak urtarrilatik hona hilean behin lan bilerak egin ditu.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren garapenaren jarraipena egiteko Batzordeak lau koodinazio bilera egin ditu eta haiekin koodinatzen den Elkargoko Batzordeko kidearekin bilera bat.

2018/01/24 Vitoria-Gasteizko Udalako Gizarte Zerbitzuen Sailaren II HANUP eztabaida bileran Arabako Delegatua bertaratu zen.

2018/02/06 Bilboko Hezkuntza Fakultateak (UPV/EHU) eta Elkargoak duten komenioari jarraipena emateko eta urteko programaziorako lan bilera egin zuten.

2018/02/22 Arabako Gizartze Zerbitzuetako Lurralde Kontseiluko Osoko bilkuran Elkargoko Arabako Delegatuak parte hartu zuen.

2018/03/20 Arabiera haztaperen tailerrean, Elkargoak antolatutakoa, hamabi lagun parte hartu zuten.

2018/04/18 Hezkuntza, Filosofia eta Antropologiako Fakultateak (UPV/EHU) Donostiakoa eta Elkargoak duten komenioari jarraipena egiteko bilera. Dekanoa eta Gizarte Hezkuntza Graduakoa Koordinatzailea parte hartu zuten.

2018/04/20 Bilboko Udalako GZUB-ek Etxegabeko pertsonen Batzordean etxegabeko persona bat bortxa jasateagatik premiazko ezohiko deialdian Elkargoko ordezkariak parte hartu zuen.

2018/04/25 Etika eta Deontologia Batzordeak "El Código deontológico de la Educación Social. Una visión desde la práctica profesional" aurkeztu zuen.

2018/05/11 Bilboko Hezkuntza Fakultateko (lehen, Irakasle Eskola) (UPV/EHU) Gizarte Hezkuntzan unibertsitate titulua jaso zuten lehen promozioaren 20. urteurrenaren ospakizunetan Elkargoko kide batek parte hartu zuen.

2018/05/12 eta 13 CGCEESEko Ohiko Batzar Nagusian gure Elkargoko ordezkariak parte hartu zuen.

2018/05/18 AGINTZARI GEEKekin prestakutzarako lankidetzaren hitzarmen sinatu zen.

2018/05/18 Bilboko Udalakoa Gizarte Zerbitzuetako Udal Kontseiluaren Batzar Nagusian Elkargoko ordezkariak parte hartu zuen.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

GIZARTE HEZITZAILEAK PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIETARAKO IRAKASLE

LANBIDE ETA HOBETUZek (Estatu mailan SEPE) ematen dituzte PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK deritzonak. [Profesionaltasun ziurtagiria](#) dokumentu bat da, langile batek [Lanbide Kualifikazioen Estatuko Katalogo](#)ko lanbide batean lan egiteko gaitasuna duela adierazten duena. Ziurtagiri hauek egiaztatzen dute gaitasuna duzula enplegurako garrantzia duen lan jarduera batean aritzeko, hau da, lanbide baterako, eta horretarako beharrezkoa den prestakuntza ziurtatzen dute.

Bi bidetatik lortzen dira:

- Profesionaltasun ziurtagiria osatzen duten modulu guztiak gaindituta.
- Lan eskarmentuaren bidez edo ikaskuntza ez-formalen bidez lortutako lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko ezarritako prozedurak jarraituta. PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA osatzen duten modulu guztiak gaindituta.

Profesionaltasun Ziurtagirien inguruko prestakuntza **ikaskuntza moduluetan** antolatzen da (moduluak 90 orduetik gorakoak direnean, prestakuntza unitateetan banatzen dira) eta **horien bidez ikasleek**, praktika aldiarekin batera, beharrezko **gaitasunak** lortzen dituzte.

Gizarte Hezkuntzan unibertsitate titulua dutenak PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIETAKO moduluetan prestatzaile izan daitezke, baina, ezin da aurretiaz jakin, irakaslegai bakoitzak LANBIDE edo HOBETUZen baimena lortu behar baitu modulu jakin bakoitzerako. Dena dela, hau ez da enplegu meategi bat izango, beste aukera bat baizik.

LANBIDEk ematen die baimena prestatzaileei bere ikastaroetarako (HOBETUZen kasuan, Fundazio honek ematen du baimena) eta, horretarako, kontuan hartzen du irakasle gisa duzun gaitasuna eta prestakuntza moduluan emandako gaietan duzun eskarmentua, bai eta zure titulazio akademikoa ere (beharrezkoa denean): hori IV Eranskinean, Profesionaltasun Ziurtagiri bakoitzerako Errege Dekretuetan prestatzaileentzat adierazitako betekizunak kontsultatu behar dira.

Profesionaltasun Ziurtagirietan moduluetarako prestakuntza emateko, prestakuntza ematen duen erakundearen bidez lortzen da onespena; honek dagokion LANBIDE bulegoan (edo HOBETUZekoan, kasua bada) kontsultatuko du, betekizunen araberrako egiaztagiririk aurkeztuta, ea kontratatzekoa den pertsona ikastaro jakin horietako moduluetarako irakasle izan daitekeen.

Badakigu badirela Gizarte Hezkuntzan unibertsitate titulua izan eta hainbat arlotako Profesionaltasun Ziurtagirietarako moduluetan irakasle direnak; esaterako Pertsonen Arreta Sozio-sanitarioa Etxean emateko Profesionaltasun Ziurtagirietarako moduluetan eta Mendeko Pertsonen Zentro Sozialetan Arreta Sozio-sanitarioa emateko moduluetan; baina Gizarte eta Kultur Zerbitzuen eta beste Lanbide Arlo batzuetako Profesionaltasun Ziurtagirietako prestakuntza moduluetan ere eman lezakete prestakuntza, lan eskarmentua eta irakasgaitasuna kontuan izanik.

Bestalde, Gizarte Hezkuntzan titulua dutenek ez dute, hasiera batean, irakasgaitasunik,

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

LANBIDE eta HOBETUZen aburuz (edo SEPE Estatu mailan), diplomatura/gradoetan lanerako prestakuntza ikastaroetan prestakuntza emateko.

Profesionaltasun Ziurtagirien prestakuntza emateko, irakaskuntza gaitasuna eskatzen dute eta, araudiarekin bat eginez, adierazten du eskatutako irakasgaitasun hori lortzeko, 2013ko martxoaren 15eko 189Errege dekretuari begiratuko zaiola ([BOE 21/03/2013](#) ikus .pdf kontadoreko 6. orrialdeko zortzigarren puntua eta hur.)

Betekizun horiek bete ezean, Gizarte Hezkuntzan diplomatu/graduak bi bide izango ditu irakasgaitasun aitortza lortzeko:

1.- Irakasgaitasuna epaimahai baten aurrean egiaztatzea irakasle eskarmentua erakutsita, azken hamar urteetan 600 ordu gutxienez egiaztatuak baditu; horrela, nahikoa gaitasun duen edo Enplegurako Lanbide Heziketarako Irakaskuntzarako Profesionaltasun Ziurtagiriaren osagarri den moduluren bat behar duen erabakiko da.

2.- Lehen aipatutako [Enplegurako lanbide-heziketako irakaskuntza](#) prestakuntza egitea, 380 ordukoa (340 teorikoak eta 40 praktikoak). Horiek LANBIDEko zentro homologaturen batean emandakoak dira eta LANBIDEn web-orrian aurki daitezke.

[Enplegurako Lanbide Heziketako Irakaskuntzan Profesionaltasun Ziurtagiriaren Irakaskuntza fitxa. SSCE0110 kodea](#) orrian prestakuntzari buruzko hainbat informazio zehazten da.

Adierazitako Profesionaltasun Ziurtagiriaren Irakasgaitasuna lanerako prestakuntzarako da soilik, eta ez Oinarrizko, Erdiko eta Goi mailako Graduon Prestakuntza Zikloetarako; hauetan beharrezkoa da bigarren hezkuntza eta batxilergoko, lanbide heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako Irakasleen unibertsitate Masterra, hainbat espezialitateetan: LPO, Gizarte eta komunitatean Esku-hartzea, eta Zerbitzuak Komunitateari arloetan, hain zuzen, horiek baitira hezkuntzan titulua duen pertsonari hezkuntzan lan egiteko bidea ematen diona, nahiz eta unibertsitate guztietan titulazio hauek ez egon.

EKARPENA

SEXU-ASKATASUN ETA SEXU-UKIGABETABETASUNA ZIGOR KODEAN

GHEE-CEESPVko Aholkularitza Juridikotik indarreko Zigor Kodearen analisi laburra helarazi nahi dizuegu (10/95 Lege Organikoa), sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasun alorrei dagokiena hain zuzen ere (VIII. Titulua, II Liburua, Delituei eta horien zigorrei buruzkoa). Bereziki adierazgarria da aztertutako artikuluko gehienak 2010. urtean egindako lege-testuaren erreformaren fruitu direla.

Iruzkina juridiko horrek bazter batean uzten ditu berariaz zigor-zuzenbidearen berezko gaiak, hala nola frogaren karga, errugabetasun-presuntzioa edota "in dubio pro reo" printzipioa, eta zigor arloko azalpen hutsetan eta horiei lotutako askatasunaz gabetzeko zigorretan zentratzen da (teknikoki zigor arlokoa izango litzateke).

Zein ezberdintasun dago sexu-abusu, sexu-eraso eta bortxaketaren artean?

Abusuak, erasoak eta bortxaketak premisa bat dute komunean: pertsona baten "sexu-askatasunaren" kontrako eraso dira hirurak.

A.-. Bortxaketa edo sexu-erasoa

Sexu-erasoaren delitua Zigor Kodearen **(ZK) 178. artikuluan** jasota dago, beste pertsona batzuen sexu-askatasunaren kontrako eraso gisa.

ZKaren 179. artikuluan jasotzen da bortxaketa dela sexu-askatasunaren kontrako erasoaren adierazpenik larriena. **Larderia edo indarra erabiliz biktimaren borondatearen kontra sexu-harremana gauzatzea da bortxaketa.** Alu, aho edo uzkitik sarketa gauzatzen denean sailkatzen da ekintza bortxaketa gisa. Sarketak ez du zertan genitalez izan; bortxaketa izango da, baita, gorputzeko beste atal batzuek edo edozein objektuz eginda ere. Delitu mota honetan presente egoten da indarkeria fisikoa, horregatik sailkatzen da eraso gisa. Erasotzaileak jarrera hori hartzen du bere sexu-grina asetzeko edo biktima (emakume zein gizona) bere gain hartzeko gai dela frogatzeko.

Sexu-erasoaren delituagatik ezartzen den zigorra

Sexu-erasoaren delituek sexu-jazarpen gisa sailkatutakoek baino zigor handiagoak izaten dituzte, jakina. Hala, **kartzela-zigorra 6 eta 12 urte bitartekoa izan daiteke.** Zigorra luzeagoa izan daiteke larrigarri gisa sailkatutako egoera jakin batzuk ematen bada; orduan, **15 urtera artekoa** izan liteke zigorra (ZKaren 180. artikulua).

B.-. Sexu-abusua

Sexu-abusu gisa sailkatzen dira -ZKaren 181. artikulua- pertsona bakarrak edo batek baino gehiagok burutzen dituzten egitateak, baldin eta biktima, desabantaila-egoeran egon arren, erabat mugatuta ez badago. Delitu mota horretan **ez da indarkeria fisikorik baliatzen**, nahiz eta erasotzaileak iruzurra, manipulazioa, bortxa eta ezustekoa erabili.

Esaterako, baimenik gabeko sexu-abusu gisa sailkatzen dira konorterik ez duten pertsonen kontra egindakoak edo buruko nahasmendua duten pertsonen egoeraz aprobetxatuta egiten direnak, baita farmako, droga edo hartarako balio duten bestelako substantzia

EKARPENA

natural edo kimikoen bitartez biktimaren borondatea deuseztatuz egiten direnak ere.

Sexu-abusuagatik ezartzen den zigorra

Sexu-abusu kasuetako kartzela zigorra **4 eta 10 urte** bitartekoa da. Zigorra larriagoa izan daiteke egoeraren, biktimen adinaren edo balizko urritasunaren arabera.

Gizarte Hezkuntzan egiten den lanean, ba al dago zigor arloko figuren artean besteak baino adierazgarriagoa denik?

Aurretik esandakoaren kalterik gabe, Gizarte Hezkuntzan adierazgarria da ZKaren 183. artikulua, hamasei urtetik beherakoen kontrako sexu-abusu eta sexu-erasoei buruzkoa, zeinetan adierazten den hamasei urtetik beherako pertsona batekin sexu-harremanak dauzkan pertsonak (gizon zein emakume) adingabeenganako sexu-abusuagatiko zigorra jasoko duela, **2 eta 6 urte** bitartekoa, ZKaren 187 eta 190. artikuluetan, prostituzioa, sexu-esplotazioa eta adingabekoen galbideratzeari buruzkoetan, xedatuta dagoen legez. Garrantzitsua da nabarmentzea oso kontuan hartzen direla hezkuntza arloan nagusitasun-egoeraz aprobetxatzea eta ZKaren 192.2 artikuluan jasotako larrigarri espezifikoak.

Gainera, zigor arloan antzekok izan daitezkeen beste egoera batzuk ere jasotzen dira, honakoak besteak beste: sexu-jazarpena, exhibizionismoa, sexu-probokazioa, etab. Horiek guztiak beste une batean aztertuko ditugu.

Lerro hauek nahasiak izan litezkeen kontzeptuak argitzeko baliagarriak izango zirelakoan, jaso ezazue GHEE-CEESPVko Aholkularitza Juridikoaren agurra. Bide batez, adierazi nahi dugu, gure uste apalean, Gizarte Hezitzaileen ezinbesteko betebeharrak profesionala dela termino hauek ulertu eta menperatzea.

Severino Setien

Letradua

GHEE-CEESPVko Juridiko Zerbitzua

El Código Deontológico de la Educación Social

Una visión desde la práctica profesional

Luis Pantoja (coordinador)
M^o José Alonso
Maite Arandia

Arantza Remiso
Itxaki Rodríguez
Daniel Rubio



EL CÓDIGO DEONTOLÓGICO DE LA EDUCACIÓN SOCIAL. Una visión desde la práctica profesional. Varios autores
Coordinador: Luis Pantoja
Ediciones BETA

La Educación Social se ha dotado de los Documentos Profesionalizadores que orientan su práctica. Su Código Deontológico sirve de

carta de navegación a educadoras y educadores sociales en una sociedad compleja, en la que desarrollan su tarea cotidiana con amplios sectores de su ciudadanía en dificultad para acceder al disfrute de derechos y condiciones de vida dignas. Con frecuencia en la singladura de su trabajo se generan dudas, dilemas éticos en su práctica profesional. El Código Deontológico de la Educación Social es tierra firme para reflexionar y orientar la brújula en la toma de decisiones adecuadas. Su conocimiento previo hace que las travesías lleguen al puerto deseado, que la planificación del viaje

El número 26, "[Educación Social y Trabajo Social, un encuentro necesario](#)".



REVISTA DE EDUCACIÓN SOCIAL



gizarte zerbitzuak
ZURE ESKURAK

Eusko Jaurlaritzako Eragu eta Gizarte Politika Sailak [Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema](#) ezagutarazteko webgune bat sortu du. Gizarte Zerbitzuko Legeak adierazi zituen eskubide subjektiboak Gizarte Zerbitzuetako Zorroak Herri Administrazioek dituzten betebeharrak zehaztu ditu. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak dituen zerbitzu eta prestazioen informazioa azkar aurki dezagun webguneko bedertzi arlotan bereizten ditu.



[Sistema de indicadores para el seguimiento de la realidad de la infancia y la adolescencia en la CAPV = EAEn haurren eta nerabeen errealtateari jarraipena emateko adierazle-sistema](#)

Fundación EDE - EDE Fundazioa, Gobierno Vasco - Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 2017, 163 p.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politikaren Saileko Familia Politikaren eta Komunitate Garapenaren Zuzendaritzak, EAeko lehen adierazle-sistema diseinatu zenetik sei urte igaro direnean, egokitzat hartu da horri buruzko ebaluazio-eta berrikusketa-prozesu bat egitea hobetzeko helburuarekin eta ahalik eta tresnarik erabilgarriena lortzeko, betiere, nazioarteko erakundeek haurren ongizatearen jarraipenarekin lotuta azken urteetan egin dituzten gomendioekin eta ikerketa arloan egin berri diren aurrerapenekin bat etorriz.



[Acuerdo Interinstitucional para el Desarrollo de la Estrategia Vasca para Personas sin Hogar 2018-2021 = Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia Garatzeko Erakunde Arteko Ituna](#)

Departamento de Empleo y Políticas Sociales et al., Acuerdo Interinstitucional para el Desarrollo de la Estrategia Vasca para Personas sin Hogar 2018-2021 = Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia Garatzeko Erakunde Arteko Ituna. Vitoria-Gasteiz, Gobierno Vasco, 2018, 18, 18 p.

El Gobierno Vasco, a través de los Departamentos de Empleo y Políticas Sociales, Salud y Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, EUDEL y los Ayuntamientos de Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián, Barakaldo, Getxo, Portugalete, Irún, Santurtzi, y Laudio han suscrito un acuerdo interinstitucional para el desarrollo de la Estrategia Vasca para Personas Sin Hogar 2018-2021, que reducirá de forma significativa –al menos en un 20%– el número de personas que duermen en la calle en los grandes municipios de Euskadi de cara al año 2020. Para ello que desarrollarán políticas integrales de apoyo a estas personas.

URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.